

Jesus Bihotz Santua (B)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Ikara degit bihotzak, gupidaz beterik.

Oseas liburutik 11, 1.3-4.8c-9

Horrela dio Jaunak: «Israel haur zela
maite izan nuen
eta Egiptotik ateratzeko
dei egin nion neure semeari.

Nik erakutsi nion oinez Efraimi,
besoetan eraman nuen.

Hala ere, ez ziren ohartu
nik nituela zaintzen.

Amodio-lokarriz erakartzen nituen,
maitasun-loturaz.

Haurtxoa musuraino
jasotzen duenaren antzeko
nintzen haientzat;
makurtu eta jaten ematen nion.

Ikara degit bihotzak,
gupidaz beterik.

Ez diot haserreari pizten utziko,
ez dut Efraim berriro desegingo,
Jainkoa bainaiz ni, ez gizakia;
santua ni zuen artean,
eta ez natorkizue
haserre-suminez».

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa Is 12, 2-3. 4bc. 5-6

R.

*Pozik joango zarete zuek ere
salbamen-iturritik ura edatera.*

Bai, Jainkoa dut salbatzaile!

Harengan dut uste on
eta ez naiz beldur.

Jauna dut indar eta babes,
bera salbatzaile.

Pozik joango zarete zuek ere
salbamen-iturritik ura edatera. R.

Goretsazue Jauna,
dei egin berari,
iragarri haren egintzak herriei!

Ezagutarazi zeinen bikain den! R.

Kanta Jaunari,
gauza harrigarriak egin baititu;
mundu osoan jakin bezate
haren berri.

Egin poz-irrintzi eta oihu,
Siongo bizilagunok,
handikiro ari baita zuen alde
Israelgo Santua. R.

BIGARREN IRAKURGAIA

Zein zabal eta luze, garai eta sakon den Kristoren maitasuna.

San Pablo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik 3,8-12.14-19

Maite maiteok:

Neuri, fededun guztien artean txikiena naizen honi, dohain hau eman zait: Kristoren neurrigabeko aberastasuna jentilei hots egitea, eta Jainkoarengan, gauza guztien egileagan, betidanik gordea zegoen asmo ezkutua nola ari den betetzen guztiei argi erakustea. Horrela, agerian jartzen zaie orain, Elizaren bitartez, zeruetako aginte eta botereei Jainkoaren era

guztietako jakinduria, aurrez betidanik berak zuen eta Kristo Jesus gure Jaunarengan bete duen asmoaren jakinduria. Kristori esker eta beronengan dugun sinesmenaren bitartez ausartzen gara konfiantza osoz Jainkoarengana hurbiltzera.

Horregatik, belauniko jartzen naiz Aitaren aurrean, bai zeruan eta bai lurrian familia ororen sorburu denaren aurrean, eta hau eskatzen diot: bere aintzaren aberastasunari dagokionez, sendo zaitzatela Espirituaren indarrez, barrutik hazi zaitezten; bizi dadila Kristo zuen bihotzetan sinesmenaren bidez eta izan dadila maitasuna zuen bizitzaren erro eta oinarri. Horrela ulertu ahal izango duzue, fededun guztiekin batera, zein zabal eta luze, garai eta sakon den Kristoren maitasuna; ezaguera ororen gainetik dagoen maitasun hori ezagutuko duzue, horrela jainkozko izateaz erabat betez joan zaitezten.

Jaunak esana.

Aleluia Mt 11,29ab

Aleluia, aleluia.

Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik,
- dio Jaunak -
gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni. Aleluia.

EBANJELIOA

Saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19, 31-37

Denbora haietan, Pazko-jairako prestaketak egiteko eguna zen, eta judu-agintariek ez zuten nahi gorpuak larunbatez gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori.

Joan ziren, bada, soldaduak eta hautsi zizkieten berna-hezurak Jesusekin gurutziltzatu zituzten biei. Baina, Jesusengana iristean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zizkieten berna-hezurak hautsi; soldadu batek saihetsa zulatu zion lantzaz, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Ikusi zuenak berak testigatzen du eta haren testigantza egiazkoa da. Berak badaki egia dioena, zuek ere sinets dezazuen. Hau Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen: Ez zaio hezurrik hautsiko. Eta beste pasarte batean hau dio: Zulatu zutenari begiratuko diote.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>